

DIDAM
ESPACE D'ART CONTEMPORAIN

BAIONA HIRIAK AURKEZTEN DU
ERAKUSKETA

KARDESCH

Traces et tracés

04.04 > 2025.05.25



AZTARNAK

Euskal Herrian sortua, Kardesch gogo jakin-minarekin eta desbertintasunetara irekita hazi da. Artista margolari ospetsua da, eta, gaur egun, zenbait denboraz Didam-en bizitzeko ohorea egiten du. Espazio hori egokitu zaio udaberi honetan osoki sortutako erakusketa bat irudikatzeko. Hilabete luzetan, horrela, Kardesch-ek bere tailerrean lan egin du argitaratu gabeko lanak egiten, gaur bisitarietara eskainitako ibilbidea eraikitzeko. Plazer handiz segitzen dugu plastikozko bide horien arrastoa materialarekin jolasean, argi jokoekin eta urrezko hariz ehundutako kontrasteekin. Materiaren lan honetan gure bizitzako etengabeko eraldaketak eta gure barneko izakien oreka eta desorekak islatzen dira.

Ikusizko esperientzia eta ibilbide harrigarri bat abstrakzioaren bihotzean, begiradak alaituko dituena eta arimak barnertatuko dituena. Didam-en zain gaituzu!



ÉQUILIBRE NOIR 2526 @ Kardesch © O. Houeix

EMPREINTES

Née au Pays Basque, Kardesch a grandi dans un esprit curieux et ouvert aux différences. Artiste peintre de renom, elle fait aujourd'hui l'honneur de venir habiter quelques temps le Didam, espace qui lui a été confié pour imaginer ce printemps une exposition créée de toutes pièces pour le lieu. Pendant de nombreux mois, Kardesch a ainsi travaillé dans son atelier à la réalisation d'œuvres inédites pour construire le parcours offert aujourd'hui aux visiteurs. C'est avec grand plaisir que nous suivons la trace de ces chemins plastiques se jouant de la matière, de jeux de lumière et de contrastes tissés au fil d'or. Dans ce travail de la matière se traduisent les transformations successives de nos vies ainsi que les équilibres ou déséquilibres de nos êtres intérieurs.

Une expérience visuelle et un parcours étonnant au cœur de l'abstraction qui réjouira les regards et pénétrera les âmes. Nous vous attendons au Didam !

EMPRENTAS

Vaduda au País Basco, Kardesch que creishó en un esperit curios e obèrt a las diferéncias. Artista pintra de renom, que hè uei l'aunor de vièner abitar quauques temps lo Didam, espaci qui l'estó hidat entà imaginar au primtemps ua mostra creada de totas pèças entau lòc. Pendant un sarròt de mes, Kardesch qu'a atau tribalhat dens lo son talhèr a la realizacion d'òbras ineditas entà bastir lo trajècte auhèrt uei aus visitaires. Qu'es dab gran plaser qui seguim lo traç d'aqueths camins plastics qui's trufan de la matèria, de jòcs de lutz e de contrastes teishuts dab hiu d'aur. Dens aqueth tribalh de la matèria que's traduseishen las transformacions successivas de las nòstas vitas atau com los equilibris o desequilibris deus nòstes èstes interiors.

Ua experiéncia visuau e un trajècte estonable au còr de l'abstraccion qui regaudirà los espiars e qui penetrarà las amnas. Be v'esperam au Didam !

Jean-René Etchegaray

Baionako Auzapeza - Maire de Bayonne - Maire de Baiona

Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakaria

Président de la Communauté d'agglomération Pays Basque

President de la Comunautat d'aglomeracion País Basco



Oso goiz, Kardesch arte abstraktuan murgiltzen da, bere inguruko mundua interpretazeko adierazpen-modu pertsonala erabiliz.

Olio-pintura, fusaina, urre-hautsa eta kaligrafia txandaka erabiliz, etengabe bilatzen du hiztegi plastiko autonomo bat, irudimenaren mugak uxatu eta keinuaren atxikipena poliki-poliki askatuko duena. Bere tailerlean formatuak, euskarriak eta teknikak esperimentatzen ditu, paperetik kolaketara. Bilketa serie zenbakidunen bidez egiten du, eta gero eta gehiago uko egiten dio batabateko koadroei izen buruak ezartzeari. Emaztea eta artista, bizitza erritmatzen duten zikloen koherentzia hobesten du Kardesch-ek, logikak elkarri loturik, ehundurik. Obstinatuko aurre egiten dio interpretazio kritikoari, bere izaera definitu nahi duen energia bizia mugatu dezakeena eta idazten segitzen duen hori zehaztu nahi duena. Akitania Berrian eta Ile de France eskualdeetan erregularki egin ohi ditu erakusketak. Bere obrak nazioartean present dira ere, Genevan, New Yorken, Miamin, Osakan, Seoulen.

«ÉQUILIBRE»

ERAKUSKETAREN INGURUAN

Xehetasunak eta izen emateak:

05 59 46 63 43 / mediation.didam@bayonne.fr

APIRILAREN 4A OSTIRALA

ESTREINALDIA

18:00 > Kardesch-en presentziarekin erakusketaren irekiera.

APIRILAREN 5A LARUNBATA

TOPAKETA KARDESCH-EKIN

Arte Ofizioen Europako Jardunaldien baitan

13:00-14:00 > Kardesch artistaren presentziarekin, bere sorkuntza-prozedurei buruzko aurkikuntza eta trukea.

Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

APIRILAREN 14A ASTELEHENA

IDAZKETA TAILERRA

9:30-12:30 > *Encre(s)* aldizkariko Laurent Platero-k animatua.

Ordainpekoa 12€, 10€ senior, 8€ Délic txartela.

Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

APIRILAREN 16A ASTEAZKENA

UDABERRIKO FAMILIA TAILERRA!

10:30-12:00 > Kardesch artistaren motibo abstraktuetan inspiratutako paperezko arraultzen sorkuntza eta dekorazioa.

Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua. 6 urtetik goiti.

APIRILAREN 19A LARUNBATA

BISITA KOMENTATUA

13:00-14:00 > Kardesch artistak animatua.

Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

MAIATZAREN 3A LARUNBATA

BISITA KOMENTATUA

13:00-14:00 > Kardesch artistak animatua.
Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

MAIATZAREN 17A LARUNBATA MUSEOEN EUROPAKO GAUA

BISITA KOMENTATUA

16:00-17:00 > Kardesch artistak animatua.
Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.

MURGILKETA DIDAM-EKO ATZEALDEETAN

18:00-19:00 > Didam-en hamar urteen karietara, leku hau biziarazten duten taldeekin elkartzea eta haien unibertso profesionalak deskubritzea. Meryl Marchettiren impromptus poetikoek puntuatutako hartu-emanak, Les Polypoétiques, Baiona.
Doakoa. Izena eman behar da, leku kopuru mugatua.
Xehetasunak: nuitdesmusees.culture.gouv.fr

SAMEDI 24/05

MAIATZAREN 24A LARUNBATA

Manifestampe-ko koordinaturik, gertaera nazional honek grabatuaren eta estanparen praktika nabarmentzen du, funts historikoetatik sorkuntza garaikideetara. Urtero maiatzaren 26aren inguruan proposatua da, 1660ko Donibane Lohizuneko ediktua oroitzeko eguna, grabatua arte libre gisa sagarazten duena.

14:00-16:00 > Arratsaldeko ate irekien eguna eta Edith Mercier-ekin serigrafiaren hastapen-tailerrak.
Doakoa. Sartzea libre. Xehetasunak: manifestampe.org

ESKOLAK, ESKOLALDITIK KANPO ETA TALDEAK

Didam-eko bitartekaritzak eskaini frantseseraz iruzkindu bisitak eta proiektu bereziak. Zuen eskolako tartea erreserba ezazue, otoi, ondoko zenbakira deituz
05 59 46 63 43 edo
e-postaz: mediation.didam@bayonne.fr

BA OTE ZENEKIEN?

• LEHEN HAURTZAROA

Baionako ama-laguntzaileekin eta hartzaindegiekin egiten diren tailerrak direla eta, haur guztiek arte abstraktuan esperimendazioa egiten dute lurreko oihala batean, XXL formatuan. Pintzelak, belakiak, arrabolak, tonu marroidekoak, grisak, beltzak, urre-kolorekoak eta pastillina eskura, beren sormenari hitz egiten uzteko!

• EGUNEKO HARRERA PUNTUA

Baionako Eguneko Harrera Puntuko hartzaileek arte abstraktuan esperimendatzera etortzen dira, Jeanne Lafaix, psikiatriako erizaina eta kultura bitartekariaren gidaritzapean egiten den tailer baten inguruan.

• UDA LEKU AISIALDI ZENTROA

6-11 urte bitarteko talde baten harrera erakusketako lanak ezagutzeko.

• FAM ETXEA -JOHN BOST FUNDAZIOA desgaitasuna duten pertsonen eskaintza:


paziente talde baten harrera erakusketaren aurkikuntzarako eta Kardesch artistak bultzatu orekei buruzko tailer batean parte hartze-ko.



Xehetasunak ukaiteko
gure webgunera jo







ÉQUILIBRE NOIR 2527 @Kardesch © O. Houeix

Ville de Bayonne - Direction de la communication - Création R. Connesson - Mars 2025 - «Atelier 2025» (détail), Kardesch - Photos : Olivier Houeix



© R. Lange

DIDAM
ESPACE D'ART CONTEMPORAIN

6 QUAI DE LESSEPS
LESSEPS KAIA, 6

didam.bayonne.fr

Erakusketa, 2025eko apirilaren 4tik maiatzaren 25era irekia
(maiatzaren 1ean hetsia). Asteartetik igandera, 13:00etatik 18:30era
Xehetasunak

Arte bisualak poloa - baionako Kulturaren Zuzendaritza
05 59 46 63 43 - didam@bayonne.fr

 **suez**

Bayonne*
BAIONA-PAYS BASQUE